

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZAMBRANAKO UDALA

#### Zambranako udal plangintzako arau subsidiarioen 11. aldaketa puntuala

Udalbatza honek, 2021eko irailaren 16ko ohiko bilkuran, hau erabaki zuen:

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea hirigintza plangintzako arau subsidiarioen 11. aldaketa puntualari, Zambranako 1. poligonoko 8., 9. eta 10. lurzatietan industria jarduketa integratu berriari dagokionez, "2020 Grupo Financiero UVA SA" sozietateak hasi du espedientea.

Bigarrena. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, espedientea jendaurrean jartzen da hilabetez, iragarki hau ALHAOn eta lurraldean zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, interesa duen edozeinek aukera izango du espedientea udal bulegoetan aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Interesdunen eskura egongo da, halaber, udal honen egoitza elektronikoan: [<http://zambrana.egoitzaelektronikoa.eus>].

Hirugarrena. Hasierako onespeneren erabakiaren berri emango da, arloko eskumenak dituzten administrazio publikoek eta udalerriko administrazio batzarrek jakin dezaten.

Zambrana, 2021eko irailaren 16a

*Alkatea*

*AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI*